EHU

# Kudeaketa txostena

2025-2026

# Aurkibidea

1. **GOBERNANTZA**
Denon artean eta denontzat — 04

2. **IKAS- ETA LAN- BALDINTZAK**
Pertsonen zaintza erdigunean — 14

3. **IRAKASKUNTZA**
Etorkizuneko harrobia — 27

4. **IKERKETA**
Baliabide egokiak, ezagutza eta berrikuntza helburu — 40

5. **KONPROMISO SOZIALA ETA KULTURA**
Mundura irekita, Euskal Herritik Euskal Herrirako unibertsitatea — 49

# Sarrera

Dokumentu honetan Euskal Herriko Unibertsitateak 2025/2026rako egindako plangintzaren Kudeaketa Txostena aurkezten da. Plangintzak 5 ataletan bereizten ziren eta 214 ekintza aurreikusi zituen. Hurrengoa izan da betetze maila:

**162 ekintza gauzatu dira**

**39 erdizka gauzatu dira**

**13 ez dira gauzatu**

Gauzatu ez diren ekintzak, beraz, %6 izan dira eta datorren ikasturteko Jarduera Planera eraman dira.
Ondoren azaltzen dira bost atalak, gauzatu diren lorpen, ekintza eta horien betetze maila.

EHU

1.

# Gobernantza

*Denon artean eta denontzat*

# GOBERNANTZA: Denon artean eta denontzat

## Lorpen nagusiak

- EHUko Estatutu berriak Klaustroan onartzea.
- EHUko 2026-2028 Estrategia Plana diseinatu eta abian jartzea.
- EHUagora proiektu pilotu bezala abiatzea.
- EHUren marka proiekzioa indartzea.

# 1.1. HELBURUA

**Unibertsitate eredua birdefinitu eta herri-lidergoa bultzatzea**

### a) Publikoa izatearen berezitasuna gauzatu (aurrekontuetan, legea garatzean...)

Unibertsitate Lege proiektuan EHUk proposatuta aipamen berezia egin zaio Euskal Herriko Unibertsitatearen izanari ohore egiteko, bokazio publikoa duen unibertsitate bakarra den heinean.
Unibertsitate Sistemaren Planaren dokumentuan, EHU beste unibertsitateetatik bereizita agertzen da, garrantzi berezia emanez.
Aurrekontuetan Jaurlaritzarekin elkarlanean adostu da 2025eko
kontuen itxiera.

### b) EAEko Unibertsitate Lege berrian EHUren ekarpena.

Euskal Herriko Unibertsitateak Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza Sailak proposatutako Unibertsitateen Legearen aurreproiektu berrirako ekarpenen txostena ekainean bidali zuen. Campus guztietako parte-hartze saioetan eta EHUAgoran jasotako ekarpenak jaso ziren.

### c) Estatutu berriak

2026ko apirilaren 21ean EHUren estatutu berriak onartu zituen Klaustroak, kideen %73,7ko babesarekin.
Prozedura martxan jartzea izan zen errektoretza talde honen lehenengotariko erronka eta, komunitate osoaren konpromisoari esker, posible izan da USLOk ezarritako epeak betetzea.
Klaustroan ere parte hartze zabala izan zen: 237 klaustro kideetatik % 85ek parte hartu zuen, eta lehendabizikoz era digitalean egin zen, berme guztiekin.

### d) Onehealth arloan EHUko egitasmoak bateratzea

Lehen urrats gisa, 13 ikerketa talde kontsolidatu (100tik gora ikertzaile, Zientzia eta Teknologia Fakultatea eta Medikuntzak eta Erizaintza Fakultateak) iBio Ingurumen eta Giza Osasun Integraturako Ikerketa Zentroan elkartu dira; uztaileko Gobernu Kontseiluan onartu zitzaion zentro izaera.

# 1.2. HELBURUA

**Kudeaketa eraginkorra egitea**

### a) 2026-28 Estrategia plana

Estrategia Plana 2025ean zehar unibertsitatean egindako Entzute Bira zabal baten emaitza da: 8 ardatzen inguruan zehaztutako hurrengo urteetarako 124 ekintza estrategiko jasotzen dituen plana.
2026ko martxoaren 16an onartu zen, Klaustro-kideen % 85,5eko babesarekin.

### b) Behetik-gorako komunikazioa bermatzeko eta alorrez alorreko norabidea modu partekatuan definitzeko eta lantzeko bideak kontsolidatu.

EHUagora parte hartzeko plataforma digitalean hainbat proba pilotu garatu dira (Unibertsitateen lege berriari ekarpenak egiteko eta Begirune protokoloaren baitan "Espazio fisikoaren erabilera eta ondare publikoaren zaintza" gida osatzeko) eta gobernantza taldea osatu da, aurrera begirakoak antolatzen joateko.

### c) Prozedura administratiboen sinplifikazioa landu (burokrazia arindu)

Planifikatuta zeunden prozedurak produkzioan jarri dira:
1. IRIen akreditazioen komunikazioa.
2. Doktorego-tesien erregistroa.
3. Bosturtekoen eskera IRIentzako.
4. Docentiazen eskaera digitala.

Beste 6 prozeduren digitalizazio funtzionala egin da:
1. Salbuespeneko deialdia.
2. Tituluen homologazioa
3. Irakasle izateko unibertsitate masterra
4. Matrikula frogagiria
5. GAITUZ deialdia
6. Doktore osteko deialdia

### d) Artxiboaren digitalizazio prozesuarekin jarraitu

Bilboko Merkataritza Eskola Zaharreko (Elkano) funtsak Euskadiko Artxibo Historikora eraman dira euren artxiboan inbentariatzeko eta Medikuntza Fakultatea Bilboko eraikin berrira lekualdatuko dela aprobetxatuz, Artxibo Orokorrak zentro horretako aktak digitalizatzeko lehen urratsak eman ditu, fakultatearekin batera.
Erregistro digitaleko aplikazioaren lanketa (GEDE) indartu da eta formazioa eman da unibertsitateko langileen artean.

**e) Nazioarteko mugikortasuna kudeatzeko plataforma digitala lantzen jarraitu, 2026/27 ikasturtean martxan jartzeko helburuarekin**

Mobility Online plataforma 2026/27 ikasturtean abian jartzeko lan egin da. KA131 motako mugikortasunerako lehen urratsak emateko prest dago.

**f) Hauteskundeetan boto elektronikoa bideratzeko arautegia landu**

Boto elektronikoaren araudi zirriborroa landu da, urteko bigarren seihilekoan Gobernu Kontseiluari aurkezteko.

# 1.3. HELBURUA

**EHUko gobernu-organoek beren eskumenak berreskuratzea eta gardentasunez eztabaidarako eta partaidetzarako foro izatea.**

**a) Klaustroaren erabakigune izaera bermatzeko eztabaidagaiak berrikusi eta ondorioen arabera bileren maiztasuna areagotzea aztertu**

Klaustroaren Funtzionamendurako Araudia berritzeko prozesua abian jarri da, Estatutu Batzordeari Aholkularitza Talde bat gehituz. Urte amaieran araudi berria izatea espero da, bertan, besteak beste, eztabaida indartzeko prozesu berriak ezarriz.

**b) Gobernu-organoetan ordezkarien parte-hartzea landuko da estatutu berrietan**

EHUko Estatutu berrietan gobernu-organoen ordezkaritza berritu da. USLOk ezarritako baldintzetatik abiatuta, klaustrora eman eta definitu ziren ordezkaritza hauek, eztabaida zabal baten ondoren.

**c) Ordezkaritza demokratikoa eta orekatua ezarri gobernu-organoetan**

Unibertsitateko organoetan sektore guztietako ordezkariak ezarri dira eta gehitu egin da ikasleen eta irakasle-ikertzaile ez iraunkorren ordezkaritza.

### d) Ikasleen ordezkaritza-organoen ezagutza zabaltzeko ekintzak bultzatu Ikasle Kontseiluarekin batera koordinatuta

EHUko ikasle-ordezkaritzaren mapa irudikatzeko lehiaketa antolatu da Arte Ederren Fakultateko ikasleen artean. Proiektu irabazlearen poster handi bat ikastegi guztietara bidali da, leku ikusgarri batean jartzeko. Horrez gain, aurkeztutako lanekin ikastegiz ikastegi dabilen erakusketa ibiltaria jarri da martxan.
Azkenik, ikasleen delegatuekin partaidetza organoei buruzko bilerak antolatu ditugu Ikasle Kontseiluarekin batera.

# 1.4. HELBURUA

**Unibertsitate inklusiboa eta berdinzalea bultzatzea.**

### a) Berdintasun Plana 2024-2028 gauzatu eta monitorizatu

2026 urtean Berdintasun Planaren jarraipena egiten ari gara burutu diren ekintzak eta oraindik inplementatzeke daudenak berresteko. Zeregin konplexua horretan, hainbat lan-saio eta bilera egin dira, adierazleak aztertu, unibertsitateko hainbat zerbitzu eta sindikaturen parte hartzerarekin eta horrek 2028ko plana osatzeko aukera emango digu.

### b) Genero Indarkerien aurkako protokoloaren berrikuspena bukatu

Urte hasieran plangintza zehaztu da testua berritzeko eta parte hartze saioak antolatzeko IRI eta TEKAZELekin, batetik, eta ikasleekin, bestetik. Horrekin lotuta, EHUn ordezkaritza duten sindikatuen ekarpenak jasotzeko ere online formakuntza bat aurreikusi da.

### c) Aniztasun-plana garatzen hasi: unibertsitate barruan eta kanpoan egoera eta izaera anitzak, eta pertsona arteko berdintasuna sustatzeko, neurri zehatz eta eraginkorrak jasotzeko

Ikasturtean zehar arlo honetan egindako ekintzez gain, dibertsitatearen diagnosia aurreikusi da 26-27 ikasturtean martxan jartzeko.

### d) Zentroetako Berdintasun Batzordeak indartzeko eta saretzeko planaren definizioa

Berdintasun sarea indartzeko asmoz, zentroetako berdintasun batzordeekin koordinazioa indartu da.

**e) Campus guztietan Berdintasun Bulego bana irekitzeko behar diren baliabide ekonomikoen aurreikuspena egin**

Une honetan EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren presentzia dago Bizkaia eta Gipuzkoako campusetan.

**f) Bizikidetza Batzordeko funtzioak berrikusi**

Behin Estatutuak onartuta, Bizikidetza Batzordeko eskumen eta funtzioak aldatu beharra dago. Horien lanketa abian jarri da eta urte amaiaren araudiaren lehen proposamen bat izango da.

**g) Araututako kexa edo salaketak izapidetzeko leihatila bakarra sortu**

Horretarako unibertsitatean ditugun sarrera atari guztien hausnarketa egin da eta horiek kudeatzeko proposamena lantzen ari da. Urte amaierarako, unibertsitateko atal guztiak kontsultatuko dira eta leihatila bakarrerako proposamena izateko.

# 1.5. HELBURUA

**Barne- eta kanpo-komunikazio eraginkorra bermatzea.**

## Barne-komunikazioa

**a) Errektoretzaren Berripapera egonkortu**

2025eko maiatzean eta uztailean eta 2026ko urtarrilean eta uztailean argitaratu dira webgunean.

**b) IKTekin barne-komunikaziorako kanal aukera berrien aukerak aztertu: Mailing sistema berria eta EHUtaularen funtzionalitatea hobetzeko estrategia**

Barne komunikazioa hobetzeko bideak aztertu dira IKT gerenteordetzarekin batera. Hurrengo urteko komunikazio planean inplementatuko da analisi horre emaitza.

### c) Agora digitala definitzeko eratu diren lantaldeak aktibatu

EHUagoraren Gobernantza Lantaldea sortu eta aktibatu da. Era berean, hiru partaidetza-prozesu sustatu dira proiektu pilotuaren barruan.

### d) ehu.eus webgunearen berritzea inplementatu orrialde nagusien azpi-ataletan

Web nagusia eta 6 atalak nagusiak berritu dira eta azpiatalak berritzen hasita.

### e) EHUko dibulgazioa modu proaktiboan egiteko adituen katalogoa berrosatu. Adituren datu basea berreskuratu eta eguneratzeko modua topatu

Ekoizpen zientifikoko webgunean atal bat sortu da ikertzaileek adierazteko komunikabideekin harremanetan jartzeko prestutasuna.

## EHU marka eta komunikazio estrategia

### a) Marka irudiaren analisia egitea, EHUren iker-talde baten bidez

2026an zehar egin da marka irudiaren azterketa, unibertsitateko ikerketa talde batekin, eta irailean jasoko dira emaitzak.

### b) Euskarri eta eduki korporatiboak berritu eta zabaldu komunitatean, eta komunikazio kanpaina korporatibo bat garatu gizarteari begira markaren posizionamendu eta proiekziorako

Marka berriari jarraituta egokitu dira ikastegi eta eskoletako logoak eta zabaldu dira komunitatean; berdin, ekitaldietarako euskarriak, egokituta. Matrikulazio kanpaina nagusiarekin lotuta egin da komunikazio kanpaina korporatiboa.
Markaren posizionamenduari eta proiekzioari begira lehenengoz egin da ikasturte amaierako ekitaldi bateratua San Mames estadioan.

### c) Komunitateko kidegoaren autonomia ahalbidetzeko, euskarrien diseinurako tresna berri bat komunitatearen esku jartzea, marka gida berrira egokituta, eta protokolo gida praktikoa nahiz ekitaldi instituzionaletarako beharrezko euskarriak ere bai

Grafika ataria kudeatzeko lizitazioa egin da eta bidean da aurkeztu den enpresa homologatzeko prozedura.

**d) EHUren soinu-identitatea garatzea: abesti/ereserkia, audiologoa eta telefonoko itxaron-abestia**

Ehunenekoak ereserkia grabatuta eta webgunean eskuragarri dago, baita audiologo eta bideologoa ere.
Telefonoko itxaron-abestia: EHU abesbatzarekin grabaketa egin da, kalitatezko audioa izan ahal izateko eta 26-27 ikasturtean Ehunenekoak itxaron abesti gisa gehitzeko.

**e) Protokolo feministaren oinarriak finkatzea.**

Berdintasun zuzendaritzarekin eta Idazkaritza Nagusiarekin lanean hasita; izan ere, CRUEren protokoloko sektorialaren ardura dauka EHUk.

**f) Eskaintza akademikoaren kanpaina egin kalitate eta enplegagarritasun kontzeptuekin lotuta**

"Etorkizunean lanean" leloarekin osatu da inoizko publizitate kanpainarik handiena.

**g) Mikrokredentzialen inguruko lehen kanpaina abian jarri eta ebaluatu.**

Webgunean berritu da eta kanpaina arrakastatsua egin da.

**h) Sare sozialen estrategia diseinatu.**

EHUren marka azterketa egin da. Horri lotuta garatuko da sare sozialen estrategia.

**i) Analisi-metodologia eta prozedurak finkatu: komunikabideak, sare sozialak, barne komunikazio kanalak nahiz publizitate eta marketin kanpainak.**

Publizitate eta marketin kanpainak bateratzeko bidea hasi da eta kanalen neurketarekin ari da osatzen.

# 1.6. HELBURUA

**Komunikazioan hizkuntzak kudeatzeko praktika onak definitu eta unibertsitateko komunitatean zabaltzea.**

Helburu honetako a), b) eta c) jarduerak bateratu egin dira jarduera bakar batean.

**a) Hizkuntza ofizialen eta ez-ofizialen Erabilera Planak jasotzen dituen jarraibideak eta praktika onak komunitate osoari zabaltzeko euskarri egokiak diseinatu eta zabalkundea egin**

**b) Erabilera Planean jasotako euskara-arduradunak izendatu, eta planaren adierazleen balioak bildu, jarraipena egiteko**

**c) Zerbitzuak ematen dituzten enpresen kontratuak berritzen direnean, hizkuntza- klausulak berrikusten jarraitu, eta klausulen betetze mailaren jarraipena egiteko protokoloa landu eta aplikatu**

Erabilera planaren zirriborroa lantzen ari da eta urte amaieran Klaustroarekin partekatuko da ondoren Gobernu Kontseiluan onartzeko.
Plana bera onartuta ez badago ere, planean jasotako elementu batzuk zabaltzeko dokumentuak egin dira, batez ere, irakaskuntzarako praktika onak.
Euskara-arduradunen funtzioak definitu dira, eta izango duten aitortza. Erabilera-planari jarraipena egiteko adierazleak ere definitu dira. Horietako gehienen abiapuntuko balioa jasota.
Kontratazio klausulak ezartzeko prozedura ondo gauzatua dago. Duela gutxi ezartzen hasi dira. Hurrengo urratsa, jarraipena egiteko protokoloa egitea izango da.

**d) Komunikazio ez-sexista eta inklusiboa erabiltzeko gida eta praktika onak landu.**

Hasierako azterketa eginda, Kazetaritza Matxista Behatokiaren laguntzarekin eta aholku gida osatuta, komunikazio bulegoari begira. Gida osatzeko lanean hasita.

EHU

2.

# IKAS- ETA LAN-BALDINTZAK

*Pertsonen zaintza erdigunean*

# IKAS- ETA LAN-BALDINTZAK:
## Pertsonen zaintza erdigunean

## Lorpen nagusiak:

- 2025eko IRIen EPEa gauzatzea.
- IRIen promoziorako araudia berritzea, genero arrakala bideratzeko neurriak hartuz.
- Egoera zaurgarrian daudenentzako matrikula-laguntzen deialdi berritua abian jartzea.
- Gipuzkoako egoitza eraikitzeko proiektuaren garapena abiatzea.
- Adimen Artifizialaren erabileraren gogoeta bultzatzea; gomendioen dokumentua eta webgunea eraikitzea, oinarrizko formazioa ematea eta etorkizunerako formazio plana egitea.
- Txartela digitalizatzea.

# 2.1. HELBURUA

**Doktore aurreko formazioko ikertzaile-kontratuen ordainsariak hobetzea.**

**a) Doktore aurreko ikertzaileen kontratuen atxikiekiko egungo proportzioa igotzea 2026an, gutxienez, % 56tik % 60ra lehen bi urteetakoei.**

Ordainsari orokorra ezin izan dugu oraindik hobetu, baliabide ekonomikoen gabeziagatik. 2026/27an landuko da.

# 2.2. HELBURUA

**Azpiegituren mantentze-egoera hobetzea, eta hondatutako azpiegiturak eta eraikinak konpontzeko eta ikastegietan dauden espazioen eta azpiegituren hutsuneak betetzeko lehentasunak ezartzea, modu progresiboan konpontzen joateko.**

**a) Hiru campusetako Azpiegituren Berritze Plan Bereziaren baitan 2026ko aurrekontuei dagozkion obrak lehenetsi eta gauzatu.**

Araban Kirol fakultateko estalkiak eta irisgarritasuna hobetzeko aldageletako instalazioak berritzeko obrak hasi dira; Letren Fakultateko eta Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolako arotzeria-proiektuak amaitu dira, eta lehentasunezko fatxadak gauzatzeko obra esleitzeko prozesua abian jarri da. Farmazia Fakultateko laborategietako argiztapen- eta klimatizazio-sistemak berritzeko gauzatze-proiektua idatzi da.
Bizkaiko campusean pertsonen segurtasuna bermatzeko urgentziazko lanak egin dira: plataformen eraisketa, hormigoizko parasolak kentzea, anatomia tailerraren eta laborategien egokitzea, errepideetako zuloak kentzeko asfaltatzea.
Gipuzkoako Campusean Zuzenbide Fakultateko larrialdi-eskailerak gauzatu dira. Ekonomia eta Enpresa Fakultateko estalkia ordeztezko proiektua egin da eta lizentzia lortu da, igogailuen ikuskapen teknikoetan atzemandako gabeziak zuzendu dira hainbat zentroetan. HEFA I-eko beheko solairuko komunak egokitu dira. Informatika Fakultateko klimatizazio-sistemaren hasierako txostenean jasotako gorabeherak konpondu egin dira. Bizi-lerroak jarri dira AGET-en eta HEFA II-n.
Azkenik, Araba eta Gipuzkoan EEEri eta IDAEri laguntzak eskatu zaizkie Campusen inguruko geotermia-eraztunaren hedapenarekin jarraitzeko eta bigarren laguntzaren onuradun izan gara bi campusetan.

**b) Campusetako zentroen mantentze-egoerari erantzuteko deialdi espezifikoak gauzatu.**

Campusetako mantentzen lanak gauzatu dira, eskaerak jaso ahala erantzuna emanez, mantentze kontratuen bidez.
Araban 14 mantentze kontratu daude eta 96 neurri zuzentzailea gauzatu dira; Bizkaian 791 mantentze-lan kontratatu dira: 226 esku-hartze parke teknologikoan eta 565 Campuseko zentro eta eraikinetan, eta Gipuzkoan, berriz, 12 mantentze kontratuen bitartez, 146 neurri zuzentzaile egon dira.
Horrez gain, campusetako mantentze teknikariek lanak eraman dituzte aurrera beharren arabera eta, era berean, Fakultateek ere aurrera eraman dituzte beste mantentze lan batzuk.

# 2.3. HELBURUA

**Irakasle ordezkoen lan-baldintzak hobetzea.**

**a) Maiatzaren 12ko ordezkoen akordioaren aurretik mantentzen diren arduraldi partzialeko ordezkoen egoera aztertu eta osora igarotzeko aukerak aztertu**

2025/26 ikasturtean zehar jasotako ordezkapen eskaera jarduera osora izan dira, ahal izan den guztietan.

# 2.4. HELBURUA

**Ikertzaileen baldintzak hobetzea 2021eko hitzarmenari jarraituz.**

**a) Ikertzaileen karrera eta ikerketa-irudien azterketa eta egokitzapenak bideratu.**

Azterketa egin da eta webgunean dago ikusgai. Egokitzapenak bideratzeari ekingo zaio.

# 2.5. HELBURUA

**TEKAZELen 13, 14 eta 15 mailen ordainsariak hobetzea.**

**a) 2024/25 ikasturtean 13. eta 14. mailen lanpostuen balorazioaren prozedura hasi zen, 2026an ordainsaria igotzeko helburuarekin**

Aurreko urtean hasitako lana eguneratzeari ekin zaio.

# 2.6. HELBURUA

**TEKAZELen lan-baldintzak hobetzea.**

**a) Formazioa indartu Enplegu Publikoko Eskaintzaren ondorioz sortutako gabeziak asetzeko.**

Kontabilitate formazioa diseinatu da, azarorako.

**b) Zentroen itxiera modu demokratikoan gauzatzea.**

Zentroekin eztabaida hasita, erabakirik ez da oraingoz hartu.

**c) Kontziliazio-plan orokorra sindikatuekin negoziatu eta neurri berriak adostu.**

Azterketa egin da. Hurrengo fasea negoziazioari ekitea da.

**d) Telelanerako akordio berri bat lortzeko negoziazioarekin hasi.**

Ikasturte honetan Urrutiko lanari eman zaio lehentasuna.

**e) Urrutiko lana 2026an martxan jarri.**

Gobernu Kontseiluari informatu zaio gerentzian landutako proposamenaren inguruan eta 3 campusetan aurkeztuko da.

# 2.7. HELBURUA

**Hiru kolektiboentzako (Irakasleak, Ikertzaileak, eta TEKAZELak) Enplegu Eskaintza Publikoak sustatzea, ondo planifikatzea eta behar bezala gauzatzea.**

**a) EPE 2025 diseinatu eta gauzatu, bai egonkortzeko txanda librea legez atera daitezkeen plaza guztiekin eta baita 2024ko promozioa gauzatu UIB-n onartutako 56 plazekin**

2025eko abenduko Gobernu Kontseiluan onartu zen LEP 2025-ren diseinua, 169 plaza egonkortzeko, eta 2024ko promozioko 56 plazen zehaztapena. Egonkortzean zein promozioan ateratako plazak araudiak ahalbidetzen dituen gehieneko kopurua izan da.
2026ko martxoko Gobernu Kontseiluan zehaztu ziren egonkortze faseko plaza ia guztiak.
2026an zehar egin dira promozioko lehiaketa guztiak eta egonkortzeko gehienak.
Beraz, 2025 LEP-aren betetze maila erabatekoa da promozioaren kasuan, eta ia erabatekoa egonkortzean.

**b) EPE 2026ko diseinua egin eta gauzatu legez atera daitezkeen plaza guztiekin txanda librean eta promozioan**

Behin-behineko diseinua 2025/26 ikasturtean zehar landu da. Azken proposamena urte amaieran eramango da Gobernu Kontseilura.

**c) TEKAZELen plantilla definitu, eta lana orekatzearren, TEKAZEL/IRI ratioa hobetu, beste unibertsitate publikoekin parekatzeko**

Erreferentziazko plantillaren definizioaren lanketa 2026/27 kurtsoan hasiko da.

**d) TEKAZEL karrerako funtzionarioen leku aldaketa burutu**

Urtean zehar egin da karrerako funtzionarioen leku-aldaketa.

**e) TEKAZEL kontratudun finkoek lanpostu hutsak bete**

Hutsik zeuden postuen parte bat bete da. Beste postuak 23-24 EPEaren barne betetzea espero da.

**f) TEKAZELen 2023/24 EPEa burutu eta amaitu**

Deialdia egin da eta azterketak azaroan egingo dira.

**g) TEKAZELentzako 2025 EPEa onartu.**

Gobernu Kontseiluan onartu zen.

# 2.8. HELBURUA

**Irakasle eta Ikertzaileen karrera eta promozioa sustatzea egungo errealitateari egokituta, eta berdintasun-baldintzetan egitea.**

**a) 2025 promozioari bidea eman araudi berriarekin hiru irudietara (Katedra/Oso/Ikertzaile) berdintasun-baldintzetan**

2025eko urriaren 10ean Gobernu Kontseiluan onartu zen promozioko plazen sorrerarako arautegi berria. Lehen aldiz aukera ematen du ikerketa alorreko promozioa, eta sailek zuten promozio bakarreko muga kendu da. Horrekin, promozioko itxaron zerrenda epe labur batetan bukatzeko helburua betetzeko bidea ezarri da. Era berean, berdintasunezko baldintzen bidean, aurrerapausoak eman dira hiru kolektiboak berdin tratatuz eta genero arrakalak gainditzeko bideak ezarriz.

**b) Ikertzaile Iraunkorrak hautatzeko prozedurari buruzko araudia eguneratu.**

Araudia berritzeko pausuak eman dira, Errektoretza mailan zein ordezkari sindikalekin, oinarrizko araudia kontsulta publikora eraman ahal izateko. Lan honek jarraipena izango du hurrengo ikasturtean.

# 2.9. HELBURUA

**TEKAZEL langile guztien lanbide-karrera bultzatzea.**

**a) TEKAZELen karrera profesionala zelan bideratu aztertzen hasi.**

2026/2027 ikasturtean ekingo zaio.

# 2.10. HELBURUA

**Kolektibo guztien ordainsariak hobetzeko bideak urratzen hastea.**

Helburu honetako a) eta b) jarduerak bateratu egin dira jarduera bakar batean.

**a) Bidea ireki Eusko Jaurlaritzarekin, galdutako eros-ahalmena berreskuratzeko.**

**b) Irakasle eta ikertzaileen ordainsariak egokitu eta eguneratzeko bidea ireki.**

Martxoan Eusko Jaurlaritzarekin sinatu zen akordioan sarrerako soldata hobetzea aurreikusten da. 2026an zehar nola bideratu aztertuko da.

**c) Osagarrien deialdia 2026ko urte hasierara aurreratu ebaluazioa urtean bertan gauzatzeko.**

Ordainsarien azterketarekin batera aztertuko da.

**d) TEKAZELen monografiak eguneratzeari ekin, dagokien maila aztertuz.**

2026/27an hasiko da monografien eguneraketa prozesua.

# 2.11. HELBURUA

**IRIen ordutegiak eta lanaldiak malgutzea, zaintza-premiak kontuan izanda.**

**a) Lanaldia eta haren kontrola zehazteko bidea ireki akademiaren izaera berezia kontuan hartuz eta zaintzarekin uztartuz eta tutoretzen araudia horretara egokituz.**

Lan akademikoaren berezitasunak kontutan hartzen duen azterketa egin da oinarriak zehazteko aurrerago zaintza, lanaldi eta tutoretzen arautegia egokitzeko, modu bateratuan estatuko beste unibertsitateekin batera.

# 2.12. HELBURUA

**Ikasleen behar bereziei erantzuteko eta ongizatea bultzatzeko ekintzak sustatzea.**

**a) Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren izen eta araudi aldaketa burutu.**

Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren izen-aldaketa gauzatu da, eta araudi berria prozesu parte-hartzaile baten bidez landu da, zerbitzuaren, ikasleen, ikastegien eta elkarteen ekarpenak jasoz. Errektoretza Taldeak maiatzaren 26an onartu ondoren, ekainean Graduaren eta Graduondokoaren arloko errektoreordetzen eta Gerentziaren txostenak eskatu ziren. Txosten horiekin araudia COARDen eta Gobernu Kontseiluan onartzea falta da.

**b) Matrikulak ordaintzeko laguntza itzulgarrien deialdia berritu eta aldatu ikasle gehiagorengana iristeko eta baliabide informatikoen mailegua integratzeko deialdian.**

Funts Sozialaren esparruan, zaurgarritasun-egoeran dauden 33 ikasleri matrikula ordaintzeko laguntzak onartu zitzaizkien, behin-behinean. Hartzaileen profila zabaldu da masterreko ikasleekin eta laguntza-aukera berriak jarri dira abian; hala nola, ordenagailuen mailegua eta RESA egoitzako plazetarako bekak.

**c) Ikasleentzako kudeaketa autonomoa izango duten espazio berriak bilatu.**

Ikasle elkarteekin bilerak egin dira espazioen beharrak diagnostikatzeko, eta gaia elkarteekiko Bitartekaritza Foroan zein Errektoreordetzan landu da. Oraingoz espazio egonkor berririk lortu ez bada ere, erabilera ez-esklusiboko espazioak jarri dira ikasleen eta elkarteen eskura.

**d) Elkarteen Bitartekaritza Foroan matrikulen ordainketari buruzko bi bilera tematiko egin ordaintzeko arazoak dituzten ikasleen problematikak detektatu eta irtenbideak bilatzeko.**

Matrikulen ordainketari buruzko bilera tematikoa antolatu zen, baina elkarterik edo talderik izena eman ez zuenez, ezin izan zen egin. Deialdia berriro egin beharrean, gaia EHUko Ikasle Kontseiluak prezio publikoei eta bekei buruz abiatutako inkesta eta parte-hartze prozesuaren bidez lantzea erabaki zen. Prozesu horren emaitzak aztertu eta diagnostikoa osatzeko erabiliko dira Elkarteen Bitartekaritza Foroan.

**e) Ikasleen arreta psikologikorako zerbitzua ezagutarazteko ekintzak burutu eta ahal den neurrian arretarako kokapen egokiagoak lortu.**

Zerbitzuak 465 ikasle artatu ditu, banakako eta taldeko esku-hartzeen bidez. Hiru campusetan eskainitako doktoregaien ongizate emozionalerako programak eta Osasun mentala: ikasteko dugun ikasgaia prestakuntzak 240 izen-emate izan dituzte. Zerbitzuaren hedapena eta ikusgarritasun mediatikoa indartu dira, eta arreta-espazioak hobetu: Gasteizko bulegoa Elurretara lekualdatu da eta Sarrikon bulego berria ireki da.

**f) Ostatuko zerbitzua birpentsatu eta araudia berritu.**

OSTATU zerbitzua birpentsatu da, eta haren egungo egoera, erronkak eta etorkizunerako aukera desberdinak jasotzen dituen txostena egin da. Araudia hurrengo kurtsoan berrituko da eta izango duen finantzazioak baldintzatuko du, hurrengo lau urteetarako eredua zehaztuz eta araudia horren arabera egokituz.

**g) Ikasleei zuzendutako egoitza plazen eskaintza gehitu**

Hitzarmena sinatu da EHUko ikasle eta ikerlariek lehentasuna izan dezaten Gasteizen ireki den egoitza berrian.

# 2.13. HELBURUA

**Kolektibo guztientzako formazio-plan integralak diseinatzea eta abian jartzea.**

**a) Nazioarteko jarduerak ahalbidetzen jarraitu kolektibo guztientzat.**

EHUko langileen iraupen laburreko mugikortasunak sustatzeko 2026/2027 ikasturte honetako deialdietan (20260702 argitaratuta) aldaketa garrantzitsu batzuk egin dira, IRI zein TEKAZELen mugikortasuna ziurtatuz eta beren lan-araubideen elementu bereizgarrietara egokituz.
Halaber, doktoregoan atzerrian iraupen luzeko egonaldiak egiteko laguntza osagarri bat eskaini da horretarako beste laguntzarik lortu ezin duten doktoregaiei. Horrela nazioarteko aipamena lortzeko laguntza eman diogu kolektibo honi.

**b) Irakasle eta ikertzaile berrientzako harrera, zerbitzu-gidak eta formazio-plana diseinatu.**

EHUko Irakasleen Garapen Akademikorako markoa garatu da. Eta irakasle heldu berrien formazioa eta jarraipena bideratu dira era presentzial eta eGelapi bidez.
Zerbitzu gida marko tipo bat diseinatu da.
Dokumentu berriak aurkezpen eta onarpen fasean daude.

**c) Euskara akademikoa lantzeko formazio-eskaintza handitu eta hobetu**

Doktoregaientzako berariazko hizkuntza-prestakuntza diseinatu, eta aurrera eraman da. Irakasleei zuzenduta, Aitzinatu programa eskaini da, eta dozentziari begira ahozko komunikazioa hobetzeko ikastaroa eskaini da. EHULKU sarea osatu eta martxan jarri da, hizkuntza-zalantzak argitzeko. 26-27 ikasturterako IRIentzako formazio-plan integralagoa diseinatu da.

**d) Kanpotik datozen ikertzaileentzako, irakasleentzako eta ikasleentzako harrera linguistikoa landu, eta euskara ikasteko bideak erakutsi eta erraztu**

Euskarazko klaseak eskaini dira campusetan eta klase telematikoak, eta oso harrera ona izan dute.

**e) GAURen irakaskuntza eskaintza grabazioa eta automatizazioa nola egin bideratzeko formazio eman TEKAZEL arduradunei**

Formazioa eman da. Lau ikastaro eman dira, bata Fakultate eta Eskoletako TEKAZELei, euskaraz eta gazteleraz, online formatuan. Eta zerbitzu zentraletako TEKAZElei beste bi, presentzialki.

# 2.14. HELBURUA

**Digitalizazio-plan integrala osatzea.**

**a) EHU Plan Digitala diseinatu eta aurkeztu**

Plana era parte-hartzailean osatu da. EHUko kolektibo ezberdinei aurkeztu zaie eta iradokizunak jaso dira, baita audientzia publikoan jarri. Abenduan Gobernu Kontseiluan aurkeztuko da eta webgunean publiko egin.

**b) EHUn adimen artifizialaren generatiboaren gaineko gogoeta bultzatu, EHUko Adimen Artifiziala Generatiboaren erabilera eta gomendioen dokumentua oinarri izanik**

Gogoeta sakona bultzatu da. "EHUn Adimen Artifiziala sortzailea erabiltzeko printzipioak eta gomendioak" dokumentua adostu, aurkeztu eta argitaratu da. Eta “Adimen Artifiziala EHUn” webgunea argitaratu da.
Formazioari dagokionez:

- “Fundamentos de la Inteligencia artificial generativa para el desarrollo de la Docencia en Educación Superior” (EHU) mikrokredentziala diseinatu eta garatu zen. 500 irakaslek hartu zuten parte.
- Webiner bi saio eman dira, EHUko langile guztientzako irekiak.
- EHUko irakasle, ikasle eta ikasleentzako 2026-27 ikasturterako plana diseinatu da.

**c) Egoitza Elektronikoan prozedura berriak ezarri: EHUn ditugun prozesuen azterketa egin, digitalizazio hurrenkera sortu eta 5 prozedura berri eskuragarri jarri.**

IRIen Doktore titulua eta akreditazioak izatearen komunikazioa bideratzeko prozedura indarrean jarri da.

**d) Unibertsitate txartelaren birtualizazioa aztertu**

Unibertsitate txartela birtualizatzeko lanari ekin zaio, bai ikasle, bai irakasle eta TEKAZELentzat NIK Euskadiko patrika digitalean eskuragarri egon dadin. Asmoa da NIK Patrika Digitalean txartela eskuragarri jartzea komunitate guztiarentzat.

**e) EHUko datuen adierazleak zehaztu etorkizuneko Datuaren Unitatea eraikitzeko bidean.**

EHU datutan plataforma eraiki da eta EHUko adierazle orokorrak zehaztu dira.

**f) IKTei eta Digitalizazioari lotutako proiektuen eskaeren kudeaketarako prozedura diseinatu, hautaketan eta garapenen egoerak era gardenean komunitateari aurkezteko.**

Dauden plataforma digitalen eta eraldaketa digitalen proiektuen azterketa egiten ari gara. EHUko tresna eta garapen digitalak diren burujabetza aztertzeko prozesuan zabaldu da.

**g) Euskara akademikoa monitorizatzeko tresnak eta baliabideak garatzen jarraitu, eta adimen artifizialean oinarritutako teknologiak ezarri monitorizazioa azkartu eta errazteko.**

Tresna eta baliabide guztien sistemak eguneratu dira, eta funtzionalitatean eta integrazioan ere urrats handiak egin dira. Gainera, testu eta termino-sarrera berri ugarirekin aberastu dira: Ehuskaratuak, Garaterm, Erauzterm, TZOS, HARTA/TAILA.

**h) Idazketa akademikorako laguntza-tresnak garatu eta komunitate osoan zabaldu.**

HARTA/TAILA hobetu da, eta ikastaroetan horren erabileraren zabalkundea egin da. Komunitate osoari zabaltzea falta da.

**i) Komunikazio eleaniztunerako hizkuntza-tresnen lizentziak lortu eta komunitate osoaren eskura jarri euskararen erabilera errazteko.**

Aukerak aztertuta, erabaki da lizitazio bat atera behar dela horien erabilera komunitate osoari eskaintzeko.

**j) Doktore euskaldunen datu-basea berritu eta eguneratzen jarraitzea. (Oso garrantzitsua euskaraz egindako tesien epai-mahaiak osatzeko).**

Berreskuratu da datu-basea, diseinatu zuen enpresa aztertu ondoren. Webgunean ez dago oraindik txertatuta, segurtasuna bermatzeko urratsak egin behar baitira.

**k) Mobility online plataforma abian jarri.**

Outgoing ikasketetarako Gradu/Master deialdi berria 2026ko azaroan zabalduko da.

# 2.15. HELBURUA

**Gure ikerketa-lanak bertako garapen jasangarria bultzatzeko eta bertako arazoei irtenbideak emateko lagungarriak izatea.**

**a) EHUko jabetza industriala babesteko irizpideak adostu.**

EHUko Enpresak Sortzeko Araudia sortzea, EHUko Gobernu Kontseiluak 2026ko maiatzaren 13ko bilkuran onartua.

# 2.16. HELBURUA

**Hizkuntzen akreditazio-sistemak aztertzea eta, beharrezkoa iritziz gero, egokitzea.**

**a) IRIen hizkuntza-profilak berrikusi, eta hizkuntza ez-ofizialetan irakasten dutenek beren profila egokitu dezatela sustatu.**

Euskara Batzordean finkatu dira IRIen hizkuntza-profilak onartzeko irizpidea.

**b) Euskaraz irakasteko akreditazio-sistemak berrikusi, Hizkuntza Zerbitzuek kudeatzen duten EIGA azterketa barne, komunikazio-akademikorako gaitasunak kontuan har daitezen.**

EIGArako araudia berrikusteko prozesuan ari gara, hurrengo hilabeteetan bideratzeko asmoz.

**c) Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko den 47/2012 Dekretua eta zenbait aldaketa arautzen dituen 28/2019 Dekretua berrikusi Eusko Jaurlaritzarekin batera, unibertsitateari autonomia handiagoa emateko ibilbideak eta baldintzak definitzeko orduan.**

C1 eta C2 maila egiaztatzetik salbuesteko araudian zeuden interpretazio desberdinak argitu eta bateratu egin dira, Eusko Jaurlaritzarekin eta ikastegiekin harremanetan jarrita. Ikastegietatik jasotako iruzkinak ere jaso dira. Abian jarri behar dira harremanak Eusko Jaurlaritzarekin araudia aldatzeko arrazoiak helarazteko, eta araudiaren aldaketa martxan jartzeko.

**d) Profil asimetrikoak baloratzeko irizpideak finkatu.**

Bidea Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak arautu behar duenez, hark eman beharreko urratsen zain.

EHU

# 3.

# IRAKASKUNTZA

*Etorkizuneko harrobia*

# IRAKASKUNTZA: Etorkizuneko harrobia

## Lorpen nagusiak:

- Industria Digitalizazioaren eta Zibersegurtasunaren Ingeniaritzako gradu berria abiatzea.
- Docentiaz deialdi osoa modu digitalean garatzea, erregistro elektroniko bidez.
- Irakasleen ebaluazio inkestetan genero ez bitarra gehitzea.
- Kalitate instituzionalaren formakuntza ematea Fakultate eta Eskoletako 135 arduradunei.
- Ikastegietako Plan Estrategikoak garatzeko aholkularitza zerbitzua martxan jartzea.
- Bost Fakultate eta Eskola instituzionalki berrakreditatzea.
- Lau unibertsitate-master berri bultzatzea.
- Doktorego-programa berri bat bultzatzea.
- Mikrokredentzialak arrakasta handiz ezartzea, hasierako helburua % 270,6 gaindituta: 121 mikrokredentzial, 2.776 pertsona matrikulatuta eta 2.355 ziurtagiri emanda.

# 3.1. HELBURUA

**Ikasleek ibilbide akademikoan arrakastaz aurrera egiteko bideak landu.**

**a) Agora digitala martxan jarri eta ikasleen artean zabaldu beraiei egokituriko tresnak eskainiz ere bai.**

EHUAgora eraiki da eta erabilgarri dago, proiektu pilotu gisa. Ikasleei erabilerarako behar diren irizpideak helarazi zaizkie eta erabili dute.

**b) Euskarazko komunikazio-gaitasun mugatua duten ikasleak identifikatzeko bideak landu, eta haientzako berariazko formazio-eskaintza diseinatu.**

HABEk atzera egin zuen, eta ondorioz ezinezkoa izan da egitea. Hezkuntza Fakultateetan hasi nahi genuen plan pilotua ere ezin izan da abian jarri.

# 3.2. HELBURUA

**IKDi3 hezkuntza-eredua aztertzea EHUren bereizgarrietara egokitzen ote den ebaluatzeko.**

**a) Irakaskuntza motei buruzko 2011ko araudia eguneratu eta onartu.**

Fakultate eta Eskola guztietatik informazioa jaso da. Eta araudiaren proposamen egina dago. Zerbitzuen oniritzia eta ekarpenak jasotzeko prozesuan dago. Kontsulta publikoa eta onarpena egitea falta da.

**b) EHUko irakaskuntza-eredu duala garatzeko estrategia integrala diseinatu, Fakultateen eta Eskolen beharrizanak jasoz eta indarrean dagoen EHUduala inplementatuz.**

EHUko prestakuntza dualaren garapenean aurrera egiteko, fakultate eta eskolen beharrak identifikatzen eta titulazio dualen egoera aztertzen jarraitu dugu. Era berean, EHUduala ekimena garatzeko eta sendotzeko lanean ari gara, prestakuntza dualaren koordinazioa, ikusgarritasuna eta kalitatea indartzeko helburuarekin. Ildo horretan, EHUduala eredua aurkeztu zaio Unibasq-i ebaluatzeko eta onartzeko. Horrez gain, FOPU/UIPRE programaren barruan prestakuntza dualari buruzko ikastaro bat eskaini da, irakasleen prestakuntza sustatzeko.

**c) Grado+ proiektuaren diseinu pilotua eraiki.**

Gradu+ baten diseinua zehaztu da eta pilotua bideratzeko garapena egin da Arabako Campusean.

**d) IKDi3 ereduari buruzko historikoa aztertu, eredua gaur egungo errealitatera egokitzeko proposamenak egiteko.**

SAE/HELAZ-etik bideratuta, egin da IKD i3 ereduaren berrikusketa historikoa urteetan publikatutako hainbat dokumentu aztertuz eta, batez ere, hezkuntza berrikuntza programaren datuak aztertuz, eta, ondorioz, gaur egun, i3 hezkuntza eredua bilakatu da. Aldaketa hau justifikatuz hainbat dokumentu berri idatzi dira. 2025eko i3 Jendartean ofizialki aurkeztu ziren.
SAE/HELAZ-en web orrian ikusgarri daude. Eszenatoki berri honek, gainera, EHUko irakasleen formakuntza akademikoa birplanteatzera eraman gaitu.

# 3.3. HELBURUA

**Kalitate instituzionala bideratzeko eta errazteko ekintzak.**

**a) Formazio bilerak egin fakultate eta Eskoletako arduradunekin, EuskalTekin elkarlanean.**

Formazio bilerak egin dira Fakultate eta Eskoletako arduradun guztiekin. 135 lagunek hartu dute parte.

**b) UNIKUDE aplikazioari buruzko formazio programa egin.**

Eskaera guztiei erantzun zaie. Teknikari eta arduradun berri guztiei eman zaie prestakuntza, haien lantokietan.

**c) Fakultateetako Plan Estrategikoak garatzeko aholkularitza zerbitzua martxan jarri.**

Aurreikusia zegoen ikastegi bakarrean egitea. Azkenean, hiru esperientzia pilotu jarri dira martxan, hiru eredurekin.

**d) Akreditazio instituzionala eskatu behar duten Fakultate eta Eskolei laguntza zuzena bideratu, 6 fakultate dira.**

Zuzeneko arreta eman zaie ikastegiko arduradunei, Kalitate Batzordeetako kideei, koordinatzaileei, ikastegian kalitatearen kudeaketan inplikatutako TEKAZEL kolektiboko kide guztiei, ikasleei zein irakasleei eta bisitan parte hartu behar zuten kanpoko kide batzuei. Gertuko arreta eta intentsiboa izan da.

**e) Zentroetako IPGA eta Titulazio txostenak egiteko laguntza eta motibazio bilerak egin hiru kanpusetan urrez-aurre eta online, euskaraz eta gazteleraz.**

Ikastegi guztiek hartu zuten parte. Baita titulazioetako ia arduradun guztiek ere.

# 3.4. HELBURUA

**Docentiaz programa doitzea.**

**a) Docentiaz programaren ebaluazioa bideratzeko Egoitza Elektronikoan prozesu osoa bideratu.**

Prozesua egoitza elektroniko bidez bideratu da.

**b) Docentiaz 2.0 programa inplementatzeko pilotuak egitea eta programaren berri eman komunitatean eta CRUEko unibertsitate publikoetan.**

Gauzatze prozesuan dago definizioa eginda dago arren, oraindik ez baita ireki. Docentiaz 2.0 programa formakuntza plan berri bati lotuta dago, eta horretarako proposamena badago eta zabalkunde prozesuan dago.

# 3.5. HELBURUA

**Irakaskuntza prozesuak aberasteko tresna digitalak aberastu eta eguneratu.**

**a) eGelako Zeharkako gelen sorrera eta kudeaketa estandarizatzen duen erakunde-esku-liburu bat sortzea, eta unibertsitateko zerbitzu, fakultate eta graduondoko eta doktoregoko programa guztietara igortzea.**

Eskaeren izapidetzearekin eta arduradunen arteko koordinazioarekin lotutako alderdiak landu dira, bereziki erabiltzaileen rolei, sarbide-baimenei eta gelen kudeaketari arreta eskainiz. Lan horri esker, prozeduren homogeneizazioan aurrera
egin da, espazio horien kudeaketa erraztuz eta erabiltzaileen beharrei ematen zaien arreta hobetuz.

**b) Lizentziamenduari eta materialak eGelan argitaratzeari buruzko Jardunbide Egokien Eskuliburua diseinatu eta argitaratzea.**

eGelaren erabilera-baldintzekin lotutako alderdiak landu dira, irakaskuntza-materialen erabilera eta argitalpen arduratsuari arreta berezia eskainiz. Gaur egun, eGelako erabiltzaile guztiek bi informazio-mezu jasotzen dituzte ikasturtean zehar (seihileko bakoitzaren hasieran bana) plataformaren erabilera-baldintzak gogorarazteko. Neurri horrek arauen ezagutza indartzen eta baliabide digitalen erabilera egokia eta arduratsua sustatzen laguntzen du.
Egelan ezarri da onarpen prozedura.

**c) eGelaren baliabide kritikoen tutorialak diseinatu, sortu eta garatzea, besteak beste, Wooclap eta gela birtualen kudeatzailea, erabilera pedagogikoa eta araudia betetzea indartzeko. Egelan AA oinarritutako laguntzailea sartu, eGelako tresnak irakasleek dituzten zalantzak argitzeko asmoz, era honetan etengabeko formazioa bultzatuz.**

Irakasleek eGelako tresnak erabiltzean dituzten laguntza-premia nagusiak identifikatu dira, eduki praktikoak eta autoikaskuntzarako baliabideak sortzeari lehentasuna emanez.
Era berean, adimen artifizialean oinarritutako soluzioen integrazioa egin da, ohiko kontsultak ebaztea errazteko, informaziorako sarbidea hobetzeko eta irakasleek plataforma erabiltzean autonomia handiagoa izan dezaten sustatzeko.
Sistema LAMB da, software irekian oinarrituak eta EHUn sortutakoak. 50 irakaslek formazioa jaso dute eta pilotuan parte hartu dute.

# 3.6. HELBURUA

**Hizkuntza ofizialak eta ez-ofizialak kontuan hartzen dituen hizkuntza-plangintza orokorra egitea.**

**a) Ikasle guztien datu soziolinguistikoak bildu.**

GAURen eta UNIKUDEn dauden datuak bildu dira. USAP probetan ikasleek azterketa zer hizkuntzatan egin duten biltzeko prozedura digitala zehaztu da.

**b) Ikasketa-planetan enborreko eta hautazko irakasgaiak bi hizkuntza ofizialetan agertzeko aldaketak egin eta benetako irakasgai-eskaintzatik deslotu.**

Ikasketa-plan berrietan egiten hasi da, baina indarrean dauden planetan ezin izan da egin oraindik. Graduko EO-rekin batera egin behar da.

**c) 26-27 ikasturteko irakaskuntza-eskaintzaren lehen urrats modura, ikastegiei hizkuntza ofizialetan eta ez-ofizialetan duten eskaintzaren azterketatik hasita plan arrazoitua egiteko eskatu, helburua izanda bi hizkuntza ofizialen eskaintza orekatzea eta, beharrezkoa den kasuetan, euskarazko eskaintza handitzea.**

Irizpide batzuk proposatu dira, oraingoz eragin txikia izan badute ere hasi gara helburua betetzeko lanean.

# 3.7. HELBURUA

**Irakaskuntzan hizkuntzak kudeatzeko praktika onak definitzea, unibertsitateko komunitatean zabaltzea, eta ikastegi eta sailekin batera betetzen direla zaintzea.**

**a) Irakasgaien instrukzio-hizkuntzaren araberako hizkuntza-praktikak definitu, eta zabalkundea egin: idatzizko eta ahozko komunikazioa, ikasleek gelan egiten duten erabilera, tutoretzak, ebaluazio-probak.**

Irakaskuntzarako hizkuntza-praktika onak definitu dira, eta zabalkundea egin da.

**b) Irakaskuntzarako materialen hizkuntza-kalitatea zaintzeko programak abian jarri.**

Aitzinatu programa eskaini da, eta ikasmaterialen sare-argitalpenetarako deialdia egin eta aurrera eraman da.

**c) "Euskara lagun irakasgaiak" (ELI) eskaini, gaztelaniazko edo ingelesezko taldeetan, ikasleek euskararekiko harremana ere izateko.**

"Euskara lagun irakasgaiak" (ELI) eskaini, gaztelaniazko edo ingelesezko taldeetan. EFC+ eta CSF+ irakasgaiak euskarazko eta gaztelaniazko taldeetan.

**d) EFC irakasgaiak eskaintzen jarraitu, baina baldintzak berrikusi ELI irakasgaiekin parekatzeko**

Berrikusi dira baldintzak, eta EFC+ eta CSF+ irakasgaiak eskaini dira, ELI irakasgaiekin parekatuz.

# 3.8. HELBURUA

**Terminologia-plangintza sendoa garatzea, deskripzio eta ikerketatik hasi eta harmonizazioa eta sozializazioa jomugan duena.**

**a) Garaterm corpus akademikoa eta EHUskaratuak corpusa osatzen jarraitu.**

Garaterm eta EHUskaratuak corpusak modu esangarrian aberastu dira, eta kontsulta-interfazeak berritu dira, kontsulten abiadura eta aukerak nabariki hobetzeko.

**b) Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programa berraktibatu, eta TZOS (Terminologia Zerbitzurako Online Sistema) elikatzen jarraitu.**

TZOSen kargatu dira TSE programaren barruan eginda zeuden, baina kargatu gabe zeuden termino-hiztegiak. TZOSen sistema eta kontsulta-interfazea berritu dira, kontsultak azkarragoak eta erosoagoak izateko.

**c) Terminologia akademikoa biltzeko metodologia berriak definitu eta inplementatu.**

GAURen dauden irakaskuntza-gidetatik abiatuta terminologia-zerrenda eleaniztunak automatikoki sortzeko metodologia landu da.

**d) Terminologia-hiztegien behar berezia duten jakintza-alorrak identifikatu, eta alorreko hiztegiak egiteko prozedura definitu.**

Identifikatu dira behar bereziak dituzten alorrak. Diximed sareko hiztegiaren euskarazko bertsioa egin da.

# 3.9. HELBURUA

**Unibertsitate-masterren eta doktoretza-programen eskaintza zaintzea eta kalitatea sustatzea.**

**a) Graduondoko eskaintza ofiziala zaindu, fakultateetako dekanotza taldeei eta masterretako zein doktorego-programetako batzorde akademikoetako kideei arreta eta orientazio pertsonalizatua eskainiz.**

Eskaeraren arabera, dekanotza-taldeei, unibertsitate masterretako batzorde akademikoei eta doktorego-programetako batzorde akademikoei banan-banan eman zaie arreta. Era berean, proposamen berriak egin nahi izan dituzten ikastegi eta irakasleei orientazio pertsonalizatua eman zaie.

**b) Ibilbide akademiko osoak bultzatu (gradua, unibertsitate-masterra, doktoregoa), fakultateen unibertsitate-masterretan fokua jarriz.**

Erizaintzako lehen unibertsitate-masterra (Praktika aurreratuko erizaintza eta zainketen ikerketa) eta musikako doktorego-programa bultzatu dira.

**c) Unibertsitate-masterren eskaintza etengabe berritzea eta eguneratzea, kalitatearen eta bikaintasunaren bidean, ardatz izanik: euskara, ingelesa, nazioartekotzea, diziplinartekoa eta duala.**

Ezarritako irizpideak kontuan izanik, unibertsitate-master berriak bultzatu dira: Materia kondentsatuaren fisika eta material kuantikoak; Datuen zientzia, adimen artifizial aplikatua eta beren oinarri matematikoak; Praktika aurreratuko erizaintza eta zainketen ikerketa; Bide, ubide eta portuen ingeniaritza.

**d) EHUko unibertsitate-masterrak eta doktorego-programak balioztatzea eta ezagutaraztea, estrategia komunikatiboa diseinatuz eta gauzatuz.**

Komunikazio-estrategia bat garatu da, hainbat mugarri eta ekintzarekin: web-orria eguneratzea, informazio-liburuxkak eguneratzea, Master Week ospatzea, graduondokoaren presentzia areagotzea EHUazokan (Donostia, Gasteiz, Bilbo), Latinoamerikako graduondoko nazioarteko 16 azokatan parte hartzea, estatuko graduondoko 8 azokatan parte hartzea.

# 3.10. HELBURUA

**EHUko berezko ikaskuntza eskaintza zaintzea eta balioa ematea.**

**a) EHUko graduondoko berezko ikaskuntza zaindu, fakultateetako dekanotza taldeei eta berezko tituluetako (bereziki Etengabeko Prestakuntzako Masterrak, Unibertsitate espezializazioak eta Unibertsitateko adituak) batzorde akademikoetako kideei arreta eta orientazio pertsonalizatua eskainiz.**

Fakultateetako dekanotza-taldeei eta berezko ikaskuntzaren batzorde akademikoetako kideei banan-banan eman zaie arreta.
Era berean, proposamen berriak egin nahi dituzten fakultate eta irakasleei orientazio pertsonalizatua eman zaie.

**b) Berezko ikaskuntzaren kudeaketa-eredu berria definitu eta garatze prozesua hasi, bereziki digitalizazioari dagokionez.**

Berezko ikaskuntza digitalizatzeko proiektu bati ekin zaio, eta lehen fase horretan aplikazioaren beharrizan funtzionalen azterketa eta plataformaren ezaugarri teknikoen definizioa egin dira.

**c) Berezko ikaskuntzaren araudia berritzeko pausoak eman.**

Berezko ikaskuntzaren araudi berria osatzeko aurrera egin da, mikrokredentzialak barne biltzen duena.

**d) EHUko berezko ikaskuntza balioztatzea eta ezagutaraztea, estrategia komunikatiboa diseinatuz eta gauzatuz.**

Komunikazio-estrategia bat garatu da, hainbat mugarri eta ekintzarekin: web-orria eguneratzea, informazio-liburuxkak eguneratzea, Master Week ospatzea, graduondokoaren presentzia areagotzea EHUazokan (Donostia, Gasteiz, Bilbo), Latinoamerikako graduondoko nazioarteko 16 azokatan parte hartzea, estatuko graduondoko 8 azokatan parte hartzea.

# 3.11. HELBURUA

**EHUko etengabeko ikaskuntza sendotzea mikrokredentzialen bitartez.**

**a) EHUren unibertsitate mikrokredentzialak garatu, Europarekin, Espainiako Ministerioarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin hartutako konpromisoei erantzuteko.**

Europar Batasuneko Next Generation funtsek diruz lagundutako Microcreds Plana garatu eta amaitu da, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak sustatua, Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren laguntzarekin eta erakunde publiko eta pribatuen lankidetzarekin. 121 mikrokredentzial eskaini dira, 2.776 pertsona matrikulatuta eta 2.355 ziurtagiri emanda. Hasierako helburua (870 ziurtagiri), % 270,695 gainditu da.

**b) EHUko komunitateari, enpresei, administrazio publikoei eta gizarteari oro har, mikrokredentzialak ezagutaraztea, komunikazio-estrategia propio baten bidez eta lehenengoz abian jarriko den publizitate kanpainarekin, eta arreta zein orientazio pertsonalizatua eskainiz.**

Mikrokredentzialak hedatzeko estrategia zabala egin da, enpresa, administrazio publiko eta hirugarren sektorerako informazio-saioen eta kanpainen, enplegu-azoken, irratiaren, telebistaren, aldizkari espezializatuen, liburuxken eta abarren bidez. Aldi berean, orientazio-lan handia egin da fakultate, ikastetxe eta irakasleentzat, prestakuntza mota hau eskaini nahi izan duten guztientzat.

**c) Etengabeko ikaskuntzaren araudia berritu, bereziki mikrokredentzialei dagokionez.**

Mikrokredentzialen hirugarren deialdia onartu eta abian jarri da, GAURri eta EHUren webguneari lotutako kudeaketa-eredu berri batekin.

**d) Mikrokredentzialen kudeaketa-eredua garatzen jarraitu, bereziki digitalizazioari dagokionez.**

Berezko Ikaskuntza digitalizatzeko proiektuaren esparruan, mikrokredentzialak ere sartu dira, behar funtzionalak eta eskatutako ezaugarri teknikoak identifikatzeko.

# 3.12. HELBURUA

**Graduondoko Sare Latinoamerikarra indartzea.**

**a) Graduondoko Sare Latinoamerikarraren unibertsitate masterrak finkatu eta berezko ikaskuntza eskaintza bultzatu.**

Filosofia mundu global batean (Dominikar Errepublikan), Globalizazioa: prozesu sozial eta politiko ekonomikoak (Guatemalan) eta Gizarte demokratikoa, estatua eta zuzenbidea (Guatemalan) masterrak finkatu dira. Hauekin batera, unibertsitate-master eta berezko ikaskuntza berriak bultzatzeko lan egin da.

**b) EHU eta Hego Ameriketako Unibertsitateen artean ikerketa-proiektuak garatu.**

Ikerketa-proiektuen deialdi berri bat argitaratu da, eta gure unibertsitateko ikerketa-taldeek 26 proiektu aurkeztu dituzte eta horietako 20 onartu dira.

**c) Graduondoko Sare Latinoamerikarraren Nazioarteko IX. Kongresua antolatu, prestakuntzaren eta ikerketaren arloko harremanak bultzatzeko, Sarea bera ezagutarazteko eta nazioarteko ikasleak EHUko graduondokoetara erakartzeko.**

Graduondoko Sare Latinoamerikarraren Nazioarteko IX. Kongresua antolatu da, Rafael Landívar Unibertsitatearekin lankidetzan Guatemalan ospatzeko 2026ko urrian.

# 3.13. HELBURUA

**Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusetako Esperientzia Gelak zaintzea eta balioztatzea.**

**a) Esperientzia Gelen ikaskuntza eskaintza zaindu, Campusetako Errektoreordetzekin, Fakultateekin eta Sailekin etengabeko koordinazioa mantenduz, eta ikasleei arreta egokia bermatuz.**

- Etengabeko koordinazioa errektoreordetzekin (Campusekoa, Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzakoa, Irakasle-Ikertzaileena, Gradu eta Eraldaketa Digitalerakoa), fakultateekin eta sailekin.
- Ikasleen gogobetetze orokorra: 4,6/5.
- Esperientzia Gelen Batzorde Akademikoaren aldizkako bilerak instituzionalizatu dira (Graduondoko errektoreordea eta Esperientzia Geletako hiru zuzendariak, bataz beste, 7 bilera 2025/26 ikasturtean).
- Hiru campusetako EHUko Unibertsitate Orientaziorako Azoketan erakus-mahaia jarri da lehenengo aldiz.

**b) Esperientzia Gelen ikaskuntza eskaintzaren kalitatea bermatu eta ikasleen eskariari egokitzen saiatu, kontuan izanik: hizkuntza (euskara eta gaztelania) eta modalitatea (presentziala eta birtuala).**

- Irakaskuntza-eskaintza 2026/27 ikasturtean berritzeko lanketa egin da: hautazko bost irakasgai berri, horietako bat euskaraz (Bizkaian), bi irakasgai berri Araban eta Gipuzkoan lau irakasgaik aldatuko dute hizkuntza.
- Unibertsitate Hedakuntzarako Ikastaroen programazioa berritu eta 12 mikrokredentzialen programa berria diseinatu, belaunaldi desberdinetako helduei eskaintza malguagoa eta irekiagoa eginez Bizkaian. Araban, berriz, lau ikastaro osagarri eskaintzen ziren eta mikrokredentzial modura eskaintzeko diseinatu dira.

**c) Esperientzia Gelen kudeaketa-protokoloa adostu eta eguneratu.**

Kronograma eta fluxugrama berrikusi eta eguneratu, gradu ofizialetara egokituta, zama banaketa batera egiteko.

**d) Hiru Campusetako aurrematrikula- eta matrikula-prozesuen kudeaketa estandarizatu, egungo aniztasuna berdintzeko eta eraldaketa digitala ahalbidetzeko.**

- Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritzarekin lankidetza-proiektua martxan jarri, aurre inskripzioko eta matrikulako administrazio-prozesuak digitalizatzeko.
- Hiru campusetan kudeaketa akademiko homogeneoa lortzeko adostutako irizpideak aplikatu (prozesuen estandarizazioa).

**e) EHUko Esperientzia Gelen III. Jardunaldia ospatu eta AEPUM Elkartean parte hartzea areagotu, Esperientzia Gelak ezagutarazteko eta balioztatzeko.**

- Adinekoentzako Unibertsitate Programen Estatuko Elkartearen (AEPUM) bilera, mintegi eta biltzarretan parte hartu da.
- EHUren programaren datu estatistikoak eguneratu dira webgunean.
- Esperientzia Gelen III. Jardunaldia Araban egin da (2026-05-15) eta 4. mailako ikasle guztiek parte hartu dute, Arabakoak, Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak.

**f) Ikasle eta ikasle-ohien elkarteekin elkarlanean jarduerak antolatu, eskaintza akademikoa aberasteko.**

- Ikasleek diseinatutako (edota ikasleei zuzendutako) kultura-ekimenei antolaketan eta aurrekontuan lagundu da: abesbatza, antzerki-tailerra, zineforuma, tailerrak.
- ACAEX-EGIKE elkarteari (mila kide), bere jarduera garatzeko (2 egun/asteko tailerrak, 500 parte-hartzaile baino gehiago Bizkaian), laguntza eman zaie eta espazioak kudeatu dira.
- Araban 8 irakasgai sortu dira eta 200 ikaslek parte hartu dute. Begiradak hitzaldi zikloa antolatu da amankomunean: 4 hitzaldi, 2 kontzertu eta erromanikoko hitzaldi zikloaren baitan 5 hitzaldi.

EHU

4.

# IKERKETA

*Baliabide egokiak, ezagutza eta berrikuntza helburu*

# IKERKETA:
## Baliabide egokiak, ezagutza eta berrikuntza helburu

## Lorpen nagusiak:

- Hiru campusetako ikerketa jardueretarako espazio beharra aztertu, espazioa banatzeko irizpideak berrikusi eta horien arabera geroko banaketarako oinarriak ezartzea.
- EHU-CSIC bi Institutu mistoen hitzarmenak berritu eta onartzea eta BERC batzuen hitzarmenak prestatzea.
- 2026ko EPErako eskaeraren artean Ikertzaile doktore iraunkorren kolektiboenak Ikerketa irakasle figurara promozionatzeko sartzea.
- Doktorego ikasketen matrikula-gastuei aurre egiteko osagarri bat ezartzea prestakuntza bidean dauden ikertzaileak kontratatzeko EHUko deialdian.
- ERC berriak erakartzea.

# 4.1. HELBURUA

**EHUn egiten den ikerketara bideratutako baliabideak sendotu.**

**a) Luzez hutsik egon diren abeltegiaren I taldeko postuak betetzeko hasitako prozesua 2025 urtearen bukaerarako burutzea. Abeltegiko zuzendaria eta SGIKER-eko animalia teknikaria izendatzea.**

I taldeko postuak bete dira:

- Hutsik zegoen Zerbitzuaren arduraduna (I taldea) izendatu da.
- Hutsik zegoen I taldeko SGIKER teknikari lanpostua bete da.

**b) Animalien Osasunerako aholkulariaren postua berritu eta indartu. Arduradun berria izendatu eta plan estrategikoa garatzeko betekizuna lehenetsi.**

- Animalien Osasunerako postua berritu eta indartu da. Arlo horretan aditua den, eta esperientzia luzea duen, Garikoitz Azkona Aholkulari Zientifikoa izendatu da Animalien Ongizatean.
- Hobekuntza estrategikoak zehazten zituen txostenak proposatutako ekintzen % 45 burutu dira eta beste % 24 abian jarri dira.

**c) Ekipamendu deialdian SGIKERek lortutako laguntzei dagozkien erosketak ikasturte barruan burutzea eta ekipoak udararako martxan jartzea.**

Azpiegiturentzako Ministerioaren dirulaguntza deialdian lortutako ekipamendu guztiak erosita, eta martxan.

# 4.2. HELBURUA

**Ikerketarako zerbitzuak indartu.**

**a) Ikerketaren Gestioko Zuzendaritza berrantolatu eta erdi-mailako arduradun karguak sortu.**

Lanpostuak gehitzea lortu ez bada ere, berrantolaketaren lehen urratsak burutu ditugu teknikari biren lanpostuak erdi-mailako arduradunenak bilakatuz:

- Proiektu eta Azpiegituren Zerbitzuaren Burua
- Ikerketako Deialdien Ataleko Burua

**b) Ikerketaren Gestioko Zuzendaritza, EHUrOPE bulegoa eta SGIKER zerbitzuetako pertsonal tekniko eta administratiboa indartu.**

Indartze puntual batzuk kenduta, ez da lortu TEKAZEL gehiago izatea zerbitzuen beharrak asetzeko.

# 4.3. HELBURUA

**Ikerkuntzara bideratutako eraikinen eta baliabideen aprobetxamendua hobetzea, ikerketa-taldeen beharrizanen arabera kudeatuz.**

**a) Hiru campusetako Ikerketa jardueretarako espazio beharra aztertu, espazioa banatzeko irizpideak berrikusi eta horien araberako geroko banaketarako oinarriak ezarri.**

Hiru campusetako Errektoreordetzekin koordinatuta, espazioen banaketaren egoera erreala zehaztu da eta taldeen beharrak jaso dira. Irizpideak eta banaketarako oinarriak ere definitu dira.

**b) Espazioak okupatzeko protokolo zehatzak eragile guztiekin lantzen hasi.**

Aurreko atalaren prozesuaren barruan landu dira.

# 4.4. HELBURUA

**EHUren ikerkuntza-institutu propioen ebaluazioa bideratu eta kudeaketa arindu.**

**a) EHUko Ikerketa institutuen egoeraren diagnosia egin eta ebaluaziorako irizpideak berrikusi, zehaztu eta ezarri.**

Lehen diagnosi bat egin da Ikerketa errektoreordetza-n jasotzen ditugun memorietatik abiatuta, eta Institutu guztiei 2025eko jarduna zehazteko igorri zaien txantiloi baten emaitzekin osatuta.
Horrekin atariko ebaluazio bat ere egin da eta baita ebaluaziorako irizpideak berrikusi eta zehaztu ere, ondoren ebaluazio eta jarraipen tresna sakonago eta zabalagoa garatu ahal izateko.

**b) Ikerkuntza-institutuak kudeaketa administratiborako pertsonal partekatuaz hornitu.**

Urgentziazko eta larritasun handiko kasuetan egin da, behin-behineko irtenbide gisa eta soluzio integrala eta behin betikoa aurreratuz.

**c) CIIPen beharren txostenari Eusko Jaurlaritzak ematen dion erantzuna aurrera eraman.**

Indarrean dagoen Kontratu programaren 2026ko baliabideak erabili dira CIIP-en premiazko behar batzuei erantzuteko. Eusko Jaurlaritzarekin negoziatu genuen Zentro horientzako dirulaguntza neurrien modalitatea, Ikerketa aurreratuko unibertsitate-zentroentzat deialdian gauzatu dena (IKAUNI programa).

# 4.5. HELBURUA

**BERCekiko koordinazioa eta elkarlana areagotzea.**

**a) EHU-CSIC Institutu mistoen hitzarmenak eta barne araudiak berritu (BCM eta Biofisika).**

Biak eguneratu eta berritu dira CSICeko arduradunekin batera eta uztaileko Gobernu Kontseiluan onartu ziren (dagoeneko CSIC-ek ere sinatu ditu).

**b) Polymat eta Achucarro zentroen hitzarmenak eta barne araudiak berritu.**

Biak eguneratu eta berritu dira zentroetako arduradunekin batera eta iraileko Gobernu Kontseilura eramango dira.

# 4.6. HELBURUA

**Euskal Osasun Ikerkuntza Sistemarekiko harremanak indartu eta errazteko koordinazioa hobetzea.**

**a) Osasun Saileko Ikerketa Zuzendaritzarekin eta BIOEfekin bildu eta koordinazioa sendotu.**

**b) BIOEFekiko hitzarmen markoa berritzeko hasierako urratsak egin, EHUk Osasun Sistemarekin elkarlanean egiten duen ikerketa babesteko.**

Ez da aukerarik egon jarduerari erantzuteko.

**c) European Health Data Space-i buruzko lan taldea osatzen hasi gara, Osasun Saiarekin solaskidetza egiteko.**

Zuzenbide eta Informatika Fakultateetako hainbat kiderekin bilerak egin ditugu lan talde hori eratzeko lehenengo pauso gisa.

# 4.7. HELBURUA

**EHUn izena emanda duten doktoregaiei babesa eskaini.**

**a) Doktoregaientzako formakuntza indartu: ikasturtean zehar ikerketa arduratsurako ikastaro hibridoa prestatu eta eskaini.**

Ikastaro hibridoa osatzeko, Ikerketarako Etika ikastarorako eta Jardunbide Egokien Kodea aurkezteko baliabide digitalak ekoiztu ditugu.

**b) Adimen Artifiziala ikerketan erabiltzerakoan gutxieneko bide orria eta jarraibideak proposatu.**

Gradu eta Eraldaketa Digitaleko EOrekin elkarlanean, Adimen Artifizialaren erabilera arduratsurako printzipioak eta orientabideak eskaini ditugu, eta berariazko webgunean argitaratu.

**c) Kontratua duten doktoregaiei ordainsariak hobetu.**

Doktorego ikasketen matrikula-gastuei aurre egiteko osagarri bat ezarri da, 2026ko EHUn prestakuntza bidean dauden ikertzaileak kontratatzeko deialdian; 2025eko deialdikoei ere onartu zitzaien, zuzenketa bidez.
Ordainsari orokorra ezin izan dugu oraindik hobetu, baliabide ekonomikoen gabeziagatik.

# 4.8. HELBURUA

**Ikertzaile doktore motako kontratu iraunkorra dutenak promozionatu ahal izatea.**

**a) Urtea bukatu aurretik Ikerketa Irakasle figura barne biltzen duen arautegi berria onartu.**

Urriaren 10eko Gobernu Kontseiluak onartu zuen ikerketa irakaslea sortzeko arautegiak eta 2025eko promozioan parte hartu ahal izan dute.

Helburu honetako b) eta c) jarduerak bateratu egin dira jarduera bakar batean.

**b) 2026ko EPErako eskaeren artean Ikertzaile doktore iraunkorren kolektiboenak sartu.**

**c) Hurrengo ikasturteetan Ikertzaile doktore iraunkorren promoziorako eskubidea bermatu.**

Promozioa eskubidea EPE 2026an prozesuan bermatu da;18 ikertzaile doktore iraunkorren eskariak onartu dira.

# 4.9. HELBURUA

**Ikerketan existitzen den genero-arrakala desagerrarazi.**

**a) 2026-2029 Ikerketa taldeen deialdian, aurrekoan baino Ikertzaile Nagusi emakumezko gehiago izatea.**

Bai GIC (Eusko Jaurlaritzarena) bai GIU (EHUrena) 2025eko deialdietan emakume gehiago daude IN gisa, aurreko deialdian baino.

**b) Tesi zuzendariak emakumeak izatea sustatzeko neurri gehigarriak proposatzea.**

Indarrean dauden neurriak berretsi dira.

# 4.10. HELBURUA

**Nazioarteko ikerketa indartu eta nazioartekotasuna bultzatu ikertzaileen ibilbidean.**

**a) Nazioarteko programetan parte hartzea areago eta hobeto sustatu ahal izateko, Nazioarteko I+G Bulegoa (EHUrOPE) indartu.**

Indarrean dagoen Kontratu Programari esker, 2 lanpostu eta pertsona egon dira EHUrOPen. Beraien lana funtsezkoa izan da nazioarteko deialdi, proposamen eta proiektu asko kudeatzeko; besteak beste, LIFE, CERV, DIGITAL, INTERREG Programak kudeatu dituzte.

**b) Horizon Programaren baitako proiektuetan parte hartzea handitu, nagusiki EHU koordinatzaile gisa doanean.**

Horizon Europe programaren baitan, 2025ean aurkeztutako proposamen kopurua inoizko handiena izan da. Aldi berean, deialdi horien lehiakortasuna gero eta handiagoa da, eta arrakasta lortzea gero eta zailagoa bihurtu da. Gainera, deialdi batzuen ebazpenaren zain gaude oraindik, eta, beraz, emaitzek datozen hilabeteetan bilakaera izan dezakete.

**c) Gure eskaintza lantzen jarraitu ERC-ak erakartzeko (bai Starting, Consolidator eta Advanced bananakoak, bai Synergy taldekoa).**

2025-2026 ikasturtea bereziki ona izan da ERC proiektuei dagokienez. Aldi horretan ,EHU lau ERC proiektu berriren Host Institution izan da (ERC-Adv 1 eta 3 ERC-St), eta beste bi ERC proiektutan ere parte hartuko du. Azpimarratzekoa da 6 horietatik 4 Giza edo Gizarte Zientzietako arlokoak direla.

# 4.11. HELBURUA

**Gure ikerketa-argitalpenen inpaktu zientifikoa areagotzea.**

**a) Argitalpenetan EHUko afiliazioa zuzen eta argi jartzen dela bermatzeko lanketa bat egitea eta, hala dagokion guztietan, EHUrena lehenengoa agertzearen garrantzia berretsi eta betearazteko neurriak zabaldu.**

Horretan etengabeko eginahala mantentzen da. Bestalde, argitalpen eta beste ekarpen zientifikoetan egileen afiliazioa zuzen zehazteko jarraibide dokumentua eguneratu da, Gobernu Kontseiluan onartu da eta webgunean eskuragarri jarri da.

**b) Liburutegiko gordailua garatzeko baliabideak lortu.**

Baliabide gehigarriekin gordailuaren egoera hobetu eta zuzendu da.

**c) Liburutegiarekin batera Open Science inguruan lan talde bat osatu.**

Ez da talde bereziturik osatu.

# 4.12. HELBURUA

**Ikerketa ebaluatzeko irizpideak gaurkotu.**

Helburu honetako a) eta b) jarduerak bateratu egin dira jarduera bakar batean.

**a) Ikerketaren ebaluazio-sistemaren aldaketen proposamenetan parte hartu, (COARA lantaldeetan), Unibasqekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.**

**b) COARA Estatuko chapter-ean Diziplinartekotasunari buruzko lan taldean parte-hartu.**

Parte hartu dugu (a) eta (b) lan taldeetan.

**c) Eusko Jaurlaritzaren Ikerketaren Ebaluaziorako Aditu Foroan parte hartu.**

Aditu Foroan parte hartu dugu eta ekarpen esanguratsuak egin ditugu. EHUtik 4 arduradunek hartu dute parte.

**d) EHUko CoARA akordioaren inplementaziorako lan taldea osatu.**

EHUko Liburutegiaren eta SGIKEReko kideekin hitz egin dugu lan taldea osatzeko, baina oraindik ez dugu abiatu CoARA Ekintza Plana.

**e) EHUko Ikerketa Praktika Onen Katalogoa modu partehartzailean martxan jarri, unibertsitate-komunitatearen ekarpenak jasoz.**

Jardunbide Egokien Kodea landu eta argitaratu da, unibertsitate-komunitatearen ekarpenak jaso ondoren,

EHU

5.

# KONPROMISO SOZIALA ETA KULTURA

*Mundura irekita, Euskal Herritik Euskal Herrirako unibertsitatea*

# KONPROMISO SOZIALA ETA KULTURA:

Mundura irekita, Euskal Herritik Euskal Herrirako unibertsitatea

## Lorpen nagusiak:

- **Inpaktu soziala ikusarazteko Behatokia diseinatzea eta webgune propioa sortzea.**
- **Palestinar herriari elkartasuna adierazteko hainbat ekimen akademiko, sozial eta kultural gauzatzea.**
- **Ikasle eta ikertzaile errefuxiatuei harrera eta laguntza berezitua emateko ekintzak burutzea. EHUko nazioarteko babesa duten 42 ikasleri hartu ditu: 22 emakume eta 20 gizon.**
- **Kultura bekak hiru campusetara zabaltzea eta kultura plana diseinatzea.**
- **Euskararen biziberritzean inplikatutako gizarte-eragileekiko eta erakundeekiko harremanak indartzea.**
- **Enlight aliantzan titulazio bateratuak lortzeko aurrerapausoak (European Degree Label) ematea.**
- **Spin-off-ak sortzeko arautegi berria onartzea.**

# 5.1. HELBURUA

**2030 agenda unibertsitate-jardueraren erdigunean jartzea.**

### a) Ongizatearen arloko jarduerak balioetsi eta bultzatu.

Hiru campusetako zuzendaritzen eta EHUko Ongizate Zuzendaritzaren arteko koordinazioa eta lankidetza mantendu dira, ongizatearen arloko jarduerak sustatu eta antolatzeko.

### b) Campusetan bizimodu osasungarria sustatzeko jarduerak gauzatu.

Jarduera fisikoa eta ohitura osasungarriak sustatzeko hainbat ekimen garatu dira, kirol-eskaintza mantenduz eta osasunaren prebentzioari eta sustapenari lotutako sentsibilizazio-jarduerak antolatuz. Europako Kirol Astean hainbat jarduera antolatu eta koordinatu dira campus guztietan.
EHU Espainiako REUPS sareko kide denez, hango ekimen eta data garrantzitsuekin bat eginez antolatu da, adibidez, unibertsitate osasungarrien ekimena campus guztietan era koordinatuan.

### c) Ikasleen partaidetzarekin kirol mapeoa egiteko urratsak eman eskaintza ikasleen lehentasun eta premietara egokitzeko.

Urratsak eman dira modu sistematizatuan biltzeko kirol-zerbitzuen erabilera, praktikatzen diren kirol-jarduera eta modalitateak eta erabiltzaileen datuak.
Bigarren fase batean, mapeoa osatzeko, jasoko dira erabiltzaileen gogobetetasuna, iradokizunak eta eskaerak, kirol eskaintza haien lehentasun eta beharretara hobeto egokitzeko.

### d) Inguruko erakundeekin lankidetza-esparru egonkorrak bultzatu. Kalitatezko kirol-eskaintza erakargarria prezio egokian eskaintzeko.

Kirol-eskaintza bermatzeko, inguruko erakundeekin lankidetzan jardun da, hitzartutako gimnasio eta kiroldegien eskaintza mantenduz.
Araban, Gasteizko udalarekin hitzarmena berritu da eta atzerritik datozen ikasleentzat tasa egokitzea adostu da.

**e) Unibertsitate-komunitatearen osasun-arreta hobetzeko arreta-zerbitzu integrala abian jarri.**

Arreta Psikosozial Integraleko etorkizuneko Zerbitzua garatzeko urratsak eman dira Arabako campusean, eta haren kokapena zehaztu da Gipuzkoan.

**f) Campusak konektatzeko mugikortasun plan integrala egin.**

EHUren Mugikortasuna Plana diseinatzen hasi da, campusen arteko mugikortasun iraunkorra sustatzeko ekimenekin batera; hala nola, Karos auto partekatuaren proiektua abiarazi da Araban.

**g) EHUko garapen iraunkorrarekin eta gizarte-konpromisoarekin lotutako politikariekiko eta gizartearekiko harremanak sendotzeko urratsak eman.**

EHUko Jasangarritasun eta Gizarte Konpromisoaren Zuzendaritzarekiko eta inguruko erakundeekiko lankidetza indartu da, mugikortasun iraunkorraren eta osasunaren prebentzio eta sustapenaren arloetan eta gure hiri eta lurraldeek bizi duten jasangarritasunerako trantsizio-prozesuetan unibertsitateen benetako inplikazioa erraztuko duten ekimenetan parte hartuz.

EHUk nazioarteko babesa duten 42 ikasleri laguntza integrala eskaini die, eta 2026-2027 ikasturterako korridore akademikoen programa pilotua prestatu du Estatuko beste 14 unibertsitaterekin. Ingurumenaren arloan, habi-kutxen proiektu pilotua ezarri da hiru campusetan, eta Campus Bizia Lab programaren bidez 39 proiektu lagundu dira. Halaber, Campus Planeta Plana eguneratzeko eta EHUren garapen iraunkorreko adierazleen panela osatzeko lanak abiatu dira. Erakunde eta gizarte harremanak ere sendotu dira, 2030 Agendarekin eta GJHekin lotutako euskal eta arabar aliantzetan parte hartuz.

Azkenik, Unicities programa Gasteizko Udalarekin garatzen jarraitu da, eta Bilboko Udalera zabaldu da.

# 5.2. HELBURUA

**Zientzia-kultura propioa babesten eta zabaltzen laguntzea.**

**a) Zientzia-dibulgaziorako ekimenak babesten eta indartzen jarraitu.**

- EHUpodcasta martxan jarri da, EHUko dibulgazio zientifikoen podcasta, hileroko elkarrizketekin.
- The Conversation eta Teknopolis babesletzaren bidez, EHUtik dibulgazio zientifikoa egiteko aukera eskaintzen da.
- Ezagutza Zabaltzen Eusko Jaurlaritzako lehenengo deialdia kudeatu da.
- Zientzia Zirkularra programaren bidez EHUko irakasle/ikertzaileak ikastetxeetara joan dira zientzia-dibulgazioko tailerrak eta hitzaldiak ematera.

**b) Euskal aldizkariekin lankidetza indartu.**

Elhuyarrekin batzartu gara.

**c) Diru-sarrera handitu patenteen lizentziekin.**

- Enpresekin elkarrizketak eta kontrastea": OTC bulegotik abian jarritako aktibitatea, 2025ean. EHUko patenteen katalogoa dago eta interesa duten enpresei aurkezten zaie (2026an, 20 patente).
- Transferentzia feria garrantzitsuenetara joan da (Transfiere, Science4Indsutry, BioSpain, etab.) EHUk stand bat jartzen du eta ikerlariak gonbidatzen ditu beraien teknologia (patentatua) aurkeztera.
- "Erosketa Publiko Berriztagarria": patenteak komertzializatzeko beste aukera bat (Compra Pública Innovadora, CPI). Horretarako, aholkulari baten laguntza beharrezkoa da, batez ere, aukerak bilatzeko eta dokumentazioa prestatzeko. 2026an aholkulari hori aukeratzeko lizitazioa aurkeztu eta ebatzi da. Jadanik hasi gara CPI aukerak jasotzen eta ikerlariekin partekatzen.

**d) Jakintza-arlo guztietako tesi industrialak egon daitezela deialdi bat sortu.**

EHUko iker-talde finkatuentzako laguntzen deialdia diseinatu da, industria-doktoregoko tesiak egiteko unibertsitate sistematik kanpoko eragileekin lankidetzan. Deialdi hau urrian argitaratuko da.

**e) Gure jabetza industriala babesteko irizpideak adostu.**

EHUren jabetza industrialaren irizpideak adosteko OTC-tik lan handia egiten da, bai EHU barruan bai kanpora begira. EHUn irizpide horiek beste zerbitzuekin adosten ditugu, besteak beste, Euskoiker-ekin, doktorego-arduradunekin eta, orokorrean, beste errektoreordetzekin, batez ere, hitzarmenen inguruan. EHUtik kanpora begira, enpresekin eta zentro teknologikoekin ere adosten ditugu irizpideak, jabetza industrialeko klausulak negoziatuz eta beraiekin txantiloiak adostuz.

# 5.3. HELBURUA

**EHU euskal gizartearentzako erreferente bihurtzea euskararen biziberritze-prozesuan, beste eragileekiko lankidetza sustatuz, eta EHUk prozesu horri egiten dion funtsezko ekarpena gizarte osoari transferituz.**

**a) Gizarte-eragileekiko harremanak indartzen jarraitu: Euskaltzaindia, Terminologia Batzordea (IVAP), Elhuyar, UEU, Soziolinguistika Klusterra, Euskalgintzaren Kontseilua, Taupa Euskaltzaleen Mugimendua, Euskal Wikilariak, Eusko Ikaskuntza, Euskorpora, Seaska...**

Erakunde horiekin guztiekin harremanak estutu dira, besteak beste: Txillardegi sariak eraman dira aurrera Soziolinguistika Klusterrarekin; Bat egin da Euskalgintzaren Kontseiluaren Batuz Aldatu dinamikarekin; Euskarazko tesi onena saritzeko Koldo Mitxelena Sarietarako deialdia aurrera eraman da Euskaltzaindiarekin batera; Etxepare Euskal Institutuarekiko hitzarmena berritu da; Esparru-hitzarmena berritu da UEUrekin; koediziorako hitzarmenak berritu dira UEUrekin eta Jakin-ekin; eta Diximed sareko hiztegia euskaratu da Wikilarien elkartearekin batera.

# 5.4. HELBURUA

**Berrikuntzaren kultura sustatzea.**

**a) Unibertsitate-Gizarte-Enpresa gela gehiago sortu, batez ere giza eta gizarte zientzietan eta artean.**

2026an 8 gela berri sortu ditugu. Horietatik, zazpi enpresa-gela eta gizarte-gela bat.

**b) EHUgune ekimena sustatu. Unibertsitateak euskal gizarteari eskaini diezazkiokeen hausnarketarako foroak eta guneak landu.**

7 jardunaldi antolatu dira, martxoaren 3aren ingurukoa, Elkanoren heriotzaren 500. urteurrena, Palestina gogoan...

**c) EHUgunez baliatu Euskal Herriko kultur eta gizarte-eragileekin harremanak sendotzeko.**

Lankidetza izan dugu Martxoak 3 elkartearekin, Gogora institutuarekin, Gernika-Palestina elkartearekin, Valentziako Unibertsitatearekin, Bilboko Itsas Museum-arekin, Getariako Udalarekin, Nabarralde elkartearekin, Euskal Wikilarien elkartearekin...

# 5.5. HELBURUA

**Enplegagarritasunari lotutako zeharkako gaitasunen garapena bultzatzea.**

### a) Campusetako ekintzailetza-programak (Entreprenari, INIZIA eta ZITEK) antolatu.

Arrakastaz gauzatu dira hiru campusetako oinarri teknologikoko enpresa berritzaileak sortu eta kudeatzeko hiru programetan (Inizia, Entreprenari eta Zitek) proposatutako jarduera guztiak eginez.

### b) Unibertsitate-komunitatean ekintzailetza-kultura arlo guztietan bultzatu.

Ekintzailetza-kultura sustatzeko, hiru programen barruan aurreikusitako jarduerak burutu dira, eta honako hauek izan dira nabarmenenak:

- Ekin 48 antolatzea, Bizkaiko Campuseko ikasleen ekintzailetza-, sormen- eta berrikuntza-izpiritua sustatzeko.
- Handira Jo lehiaketa abiaraztea, doktore-tesietatik sortutako enpresen sorkuntza bultzatzeko.
- 2026ko Think Big Saria abiaraztea, Bizkaiko Campuseko ikasleen ekimen onenei zuzendua, eta aurreko sariaren parte-hartzaileen jarraipena egitea.
- Eusko Jaurlaritzak finantzatutako unibertsitateko ekintzaileentzako bekaren programa kudeatzea; hau da, 2025eko Gazte Ekintzailetza Bekak.
- Manuel Laborde Werlinden XXV. Sarien antolaketa.
- Enpresa berritzaileak sortu eta kudeatzeko Programako 2026ko prestakuntza-ikastaroak.
- CERN IdeaSquare-ko “TERRAFORMING” workshop-a (lantegia) gauzatu da, BIC Araba eta Nuklear Ikerketarako Europako Erakundearekin (CERN) lankidetzan.
- Enpresa-ekimenen garapena bultzatzeko INIZIA sarien edizioa arrakastaz gauzatu da.

### c) EHUtik sortutako enpresak babestu eta enpresa berrien sorreran lagundu.

- EHU-k bere spin-offak bultzatzeko lizentzia kontratuen baldintzak samurtu ditu, baldintza askoz hobeak izanez.
- OTC-tik Collider deialdira (Mobile World Capital en spin-offak sortzeko deialdia) 2026an 4 spin-off proiektu aurkeztu dira. Horietatik 2 aurrera jarraitzen dute.
- 2026an SPRIk kudeatutako Basque Tek Ventures deialdira 9 spin-off proiektu aurkeztu dira EHUtik eta horietatik 6 aurrera jarraitzen dute.

### d) Enplegu foroak antolatzen jarraitzea hiru campusetan inguruko eragileekin batera ikasleen eta graduatuen laneratzea errazteko.

Enplegu Foroak EHUko hiru campusetan egin dira, 2.100 ikasle eta graduatu baino gehiagok hartu dute parte.

**e) “Spin-off”ak sortzeko irizpide berriak adostu, legedia baimentzen duen aukera guztiak aprobetxatzeko.**

Spin-offak sortzeko araudi berria argitaratu zen. Araudi honek spin-offen sorrera bultzatu du.

# 5.6. HELBURUA

**Etengabe autoebaluatzea eta eguneratzea eta kultura zientifikoa aplikatzea transferentzia-egitasmoei.**

**a) Ezagutzak transferitzeko ekimenen eraginkortasuna aldian-aldian ebaluatu, eta beharren bilakaeran transferentzia-estrategiak egokitzen joan.**

Adierazleak daude identifikatuta, neurtu egiten dira eta horren arabera estrategiak diseinatzen dira.

# 5.7. HELBURUA

**Uda Ikastaroei norabide estrategikoa ematea.**

**a) Ikastaro formatu berriak eskaini, gaurkotasunera egokituz eta publiko berrietara iristeko aukera eskainiz.**

35 ikastarok dinamika parte-hartzaileak erabili dituzte; horietatik, bost TopaGune formatuan garatu dira, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan. Formatu horiek eztabaida, esperientzien trukea eta ezagutzaren baterako eraikuntza sustatzeko lan-ildoari jarraipena eman diote. Guztira, 2.661 pertsonek parte hartu dute metodologia parte-hartzaileak aplikatu diren ikastaroetan.
2025etik, Uda ikastaroetan gazteen presentzia igo da eta gazteak erakartzeko estrategiaren barruan, eta aurreko edizioetan abiatutako ekintzek izandako harrera ona kontuan hartuta, 2026an indartu egin dira:

- Programazioa: gazteen interesa piztu dezakeen eskaintza osatzeko lanketa berezia egin da.
- Komunikazioa: gazteei berariaz zuzendutako zabalkunde-ekintzak egin dira. Besteak beste, Gipuzkoako Campusean egindako EHUfestan, UIKren merchandaising materiala eta gazteentzako berariaz prestatutako esku-orriak banatu dira.
- Prezio bereziak: 2026ko edizio osoan, 25 urte arteko gazteek, gehieneko matrikula prezioa 25€-tan izan dute ia ikastaro gehienetan.

**b) Euskal kulturaren proiekzioa eta euskararen erabilera normalizatu.**

Programazioak euskal historia, kultura, artea, hizkuntza eta pentsamendua landu ditu, besteak beste, euskal zinemari, Barandiaranen ekarpenari eta euskararen kultur proiekzioari buruzko jardueren bidez. Gai horiek landu dituzten 17 jarduera egin dira eta 1.141 pertsonek hartu dute parte jarduera horietan.
Kultura, artea, historia eta literatura eta zuzenbidea zikloak kontutan edukirik, jardueren % 38,64 euskal kulturaren ingurukoak izan dira.
Programatutako jardueren artean, 40tan euskara izan da lehen hizkuntza (% 23,7); 101etan, gaztelania; 27tan, ingelesa; eta batean, frantsesa. Halaber, 58 jarduera elebidun eskaini dira.
Guztira, euskarak 64 jardueretan presentzia izan du, lehen hizkuntza gisa edo jarduera elebidunen barruan eta Jarduera horietan, 5.326 pertsonek hartu dute parte.

# 5.8. HELBURUA

**Campusetako bizitza soziala eta kulturala sustatzea.**

**a) Kultur jardueren mapeoa egiteko urratsak eman, eskaintza ikasleen lehentasun eta premietara egokitzeko.**

Orain arteko jarduerez mintzatu gara, baina ikasleen lehentasun eta premiak zein diren jakiteko bideak diseinatu behar ditugu.

**b) Inguruko kultura-eragileekiko eta erakunde publiko eta pribatuekiko sinergiak areagotu, kultura-jarduerak sustatzeko.**

Arte Ederren eta Guggenheim Museoekin aritu gara, Loraldikoekin eta bestelako eragileekin ere. Une honetan EHAZErekin hitzarmena daukagu ikusmiran.

**c) Ikasleentzako Kultura Bekak sortu.**

Martxan daude hiru campusetan.

**d) Kultura Batzordeak Campus bakoitzean sortu, kolektibo guztietako kideak bilduko dituztenak, eta EHUko Kultura Batzordea osatu.**

Kultura Plana egiteko batzordeak sortu dira eta espero da horiek gerora era jarraipena izatea. Dena dela, Batzorde izaera nola eman aztertu beharra dago.

**e) EHUn sortzen den kultura hedatu eta ezagutzera eman.**

Komunikabideekin harremanetan jarri gara EHUkulturak antolatutako hainbat ekimenen zabalkunderako: Pedro Canoren erakusketa, Lourdes Iriondoren abestiaren bideoklipa eta abar.

# 5.9. HELBURUA

**Ezagutzaren adar guztietan garatutako ikerketa gizartearen erronkekin lotzea.**

**a) Jakintza arlo guztietako tesi industrialak egon daitezen deialdi propioa sortu.**

Tesia industriala izan dadin doktoregaia kanpo-erakunde batean kontratatua izan behar da urte batez, gutxienez, eta hainbat arlotan zaila da hori lortzea. Horregatik, kanpo-erakunde aproposekin egin dira lehen harremanak hori lortu ahal izateko; alegia, museoak, fundazioak, gobernuz kanpoko erakundeak (GKE)...

# 5.10. HELBURUA

**EHUren ezagutza eta gaitasun zientifiko-teknologikoak ehun sozioekonomikora hurbiltzea ezagutzaren adar guztietan.**

**a) EHUren eskaintza zientifiko-teknologikoaren katalogoa egin.**

- EHUren eskaintza zientifiko-teknologikoa OTCren web orrialdean dago. Ikerketa taldeen partaidetzarekin berriztatzen ari da.
- Pateenteen katalogoa web orrialdean argitaratzen ari da.

**b) Patente lizentziak lortzeko baliabide gehiago jarri.**

Patente lizentziak lortzeko baliabideak kontratu programatik hartzen dira. Orain patenteen kudeaketa eta komertzializazioaz gain, spin-offen kapitalean sartzeko aurrekontua gehitu beharko da.

**c) EHUren inpaktu soziala neurtzeko indikatzaileak definitu.**

2025-26 ikasturtean zehar inpaktu soziala neurtzeko indikatzaileak zehaztu dira.

**d) Inpaktu soziala neurtzeko gordailu egokia prestatu.**

Behatokia diseinatu da.

**e) Inpaktu soziala izateko helburuarekin sortutako proiektuak finantzatzeko deialdi espezifikoa sortu.**

Ikerketa-proiektuen deialdia antolatu eta ebatzi da.

# 5.11. HELBURUA

**Tokiko enpresekin lankidetzan aritzea, batez ere enpresa txiki eta ertainekin, eskualdean berrikuntza eta garapen ekonomiko iraunkorra sustatuko duten prestakuntza, aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak emateko.**

**a) Tokiko enpresekin harremanak sendotu hauek izan ditzaketen prestakuntza beharrei unibertsitatetik erantzuteko bideak irekitzeko.**

Tokiko enpresekin harremanak klusterren bidez bideratzen dira. Klusterren bileratara joanez, enpresen behar izenak jakiteko aukera dago eta unibertsitateak eman dezaken laguntza aurkezteko.

**b) CEBEK ETEntzako berrikuntza-gela irekiaren bidez ETEkiko harremana sustatzea. Gelaren helburua prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza jarduerak egitea da, CEBEK Bizkaiko, enpresa elkarteko enpresen eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) iker-taldeen artean lankidetzan.**

Erakunde horiekin batzarrak egin dira elkarlanean jarraitzeko eta hitzarmen berriak egiteko aukerak aztertzeko.

# 5.12. HELBURUA

**Nazioarteko lankidetzak sustatzea.**

### a) ENLIGHT proiektuan EHUkide gehiagok parte hartzea bultzatu.

EHUn 30 pertsonak dihardute zuzenean ENLIGHT proiektuaren garapenean. ENLIGHTen deialdiek EHUko komunitate akademikoaren parte-hartzea eta nazioarteko lankidetza sustatu dituzte.
2024an 5 lankidetza-talde sortu ziren, 2025ean beste 14 eta 2026an beste 6, aurreko urteko 14 taldek lanean jarraitzen duten bitartean.
Bilakaera horrek ENLIGHTen presentzia gero eta handiagoa eta nazioarteko lankidetza-sare egonkorrak sortzeko duen gaitasuna erakusten ditu.
Funts propioekin ENLIGHT+ ekimena jarri da abian, EHUko kideek ENLIGHTeko beste unibertsitateekin garatutako lankidetza akademiko berriak sustatzeko. 30 lankidetza-talde babestu dira.

### b) Welcome centre delakoaren zerbitzuak eta nori eskaini definitu.

Web orrialdean daude identifikatuta zerbitzuak eta kolektiboak.

# 5.13. HELBURUA

**EHU unibertsitate publikoaren prestigioa handitzea.**

### a) Outgoing eta incoming mugikortasuna orekatu.

Dagoeneko ia bera da Outgoing eta incoming mugikortasunari dagokion kopurua